

HEZKUNTZA

Irakasle euskaldunak eskas direla dio Herri Kontuen Euskal Epaitegiak

Erredakzioa | DONOSTIA

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egindako txostenaren arabera, EAEn ez zen ikastetxeen «beharretara» egokitu irakasleen lanpostu kopurua 2000 urtean. Euskarazko ereduari, ohi baino ikasle gehiago matrikulatu ziren; horregatik, ordezkari irakasle gehiago kontratatu, eta langile kopurua «egokia» gainditu zuten.

Dezente gutxitu dira A ereduko ikasgelak (gaztelaniaz), eta nabarmen igo dira D eredukoak (euskaraz soilik). On-

dorioz, euskaraz irakasteko gai diren irakasleak behar dira. Oinarrizko euskara maila baino baxuagoa ez dute lehen adina eskatzen; nabarmen egin du behera.

Bigarren Hezkuntzari dagokionez, are handiagoa da aurrekontuen eta benetako lanpostuen arteko aldea. Lanpostuak gehitu ziren, eta epaitegiaren esanetan, «DBHren erreforma da desorekaren arrazoia».

Aurrekontuak lurraldeka banatuta dauden arren, horien gauzatzea ez da modu berean egiten.

PSE-EEK batzordea eskatu du hezkuntzaz aritzeko

Erredakzioa | DONOSTIA

Euskal hezkuntzari buruzko inkesta batzorde bat egiteko ez-legezko proposamena aurkeztu zuen atzo Eusko Legebiltzarreko PSE-EEKo bozeramaile Isabel Celaak. Bere hitzetan, «ez dago hezkuntzaren kalitateari buruzko eztabaidarik».

Celaak adierazi duenez, «hezkuntzarekin zer egin nahi den ez dakitelako» egin dute egitasmoa. Horrekin batera gaineratu zuen ez dagoela «hezkuntza egitasmorik; eta hori ez da komeni, Ibarretxeren gobernuaren

hezkuntzan dituen galerak ez ikusteko».

Inkesta batzordeak aditu eta jakintsuen lankidetzaz izango luke, «oinarrizko akordioetara iristeko». Besteak beste, honako gaiak jorratuko lituzke batzordeak: eskola publikoaren indartzea, euskal hezkuntza eta hiru hizkuntzak (euskara, gaztelania eta ingelesa).


Bestalde, Angeles Iztueta Jaurlaritzako Hezkuntza kontseilariaren jarrera kritikatu zuen Celaak. Bere esanetan, «egiten dituen ekintzak neoliberalak eta eskulnekoak dira».



GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS

Udalbitza eta ikastolen akordioa

Atzo hitzartu zuen Udalbitzak Ikastolen Elkartearekin diru laguntza hitzarmena. Oiarzungo udaletxean sinatu zuten akordioa Xabier Irigorri Udalbitza Patzuergoko lehendakariak eta Paulo Agirre Ikastolen Elkarteko idazkariak. Hala, herri kirolak eta mendiko gaiein inguruko hezkuntzarako 10.500 euroko laguntza eskaini dio Udalbitzak Ikastolen Elkarteari.

UHOLDEAK. Euriteek hondatutako udaletako 20 ordezkari bildu dira

MONIKA DEL VALLE / ARGAZKI PRESS

Kalteak izan dituzten herrietako eta Eudeleko ordezkariak, atzo, Bilbon.

Eudelek hondamendi eremu izendatzeko eskatuko dio Espainiako Gobernuari**Udalek larunbata arteko epea dute Eusko Jaurlaritzari laguntzak eskatzeko**

Erredakzioa | BILBO

Joan den abuztuaren 26an izandako euriteek eragindako kalteei aurre egiteko, hainbat erakundek ezarri dituzte jada udalen ondareek, azpiegiturek eta banakoen ondasunek izandako matxurak konpondu ahal izateko laguntzak. Arazoa, hala ere, ez da oraindik konpondu eta, beraz, instituzioek mahai gainean dute gaia. Hogeitabat udal kaltetutako alkateek atzo egindako bilera da horren lekuko. Honakoa da alkateek atzo hartutako erabaki nagusia: Espainiako Gobernuari, euriteek kaltetutako udalak hondamendi eremu izendatu ditzala eskatzea.

Euskadiko Udalen Elkartearen (EUEDEL) babesaz, erakunde horrek Bilbon duen egoitzan bildu ziren Bizkaiako hogeitabat alkate. Abuztuaren 26an izandako euri-jasen ondorioz, hainbat herri kalte handiak jasan zituen; Bizkaiako kostaldeko herriek, batik bat. Eudelek aurrez adierazi zuen bezala, kaltetutako herrietako udalei eta banakoei laguntzeko neurri zehatzak hartzea zen atzoko bileraren helburua.

AUKERAK

Epe bat itxi, eta beste bat zabaldu nahi

Datorren larunbata ezarri dute Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako agintariek, kalteak izan ziren udalek eskaera egiteko epetzat. Baina era berean, beste ate bat zabaldu nahian dabilta alkateak eta Espainiako Gobernuarengana jo dute laguntza eske.

Hala, goizean zehar bilduta egon ondoren, Espainiako Ministroen Kontseiluari, kaltetutako udalerriak hondamendi eremu izendatzeko eskaera luzatzeko erabakia hartu zuten Eudeleko partaideek. Eskaera egiteko arduraduna, Eudeleko lehendakari Karmelo Sainz de la Maza izango da, atzo erabakitakoaren arabera.

Begi onez hartu dute Bizkaiko Foru Aldundiaren erabakia

Bestalde, atzo Bilbon batutakoek batzarraren ondoren jakitera eman zutenenez, alkateek begi onez hartu dute Bizkaiko Foru Aldundiak kaltetuak laguntzeko

onartu berri duen dekretua. As-teartean kaleratutako Foru Dekretuak jasotzen duenez, 30 milioi euro bideratuko ditu Bizkaiako Aldundiak ondasun publikoak konpontzeko aparteko kredituetan. Era berean, uholdeek kaltetutako banakoei neurri fiskal bereziak izateko aukera emango die. Horrek, beste hiru milioi euroko kostua eskatuko dio Aldundiari.

Era berean, Eusko Jaurlaritzak ezarritako laguntzak eskatzeko udalek jarraitu behar duten prozedura, 1993ko martxoaren 18an Ministerioko Aginduan araututakoa dela adierazi zuen Eudelek. Eskae-
rak egiteko epea datorren larunbatean amaitzen da. Bien bitartean, Eusko Jaurlaritza, kalteen balorazioa egiten ari da.

Azkenik, Espainiako Gobernuarekiko konfidantza erakutsi zuten alkateek, «Gobernu Zentralak ere euskal erakundeak bezain azkar eta arduratsu jokatuko dutenaren konfidantza».

GASOLINDEGIAN
LANGILEA BEHAR DA
ARRATSALDEETARAKO
943 27 92 11
Donostia